

KOSTUEN EGITURA



Proiektuak aurrera egiten duen heinean, kostu asko agertuko dira, hau da, gure aplikazioak aurrera jarrai dezan kostu ugari pairatu beharko ditugu. Gainera, gure proiektuan ez dugu produktu material bat salduko; ondorioz, hasieran izango ditugu gastu garrantzitsuenak, nahiz eta martxan jarrita dagoenean kostuek ere hor jarraituko duten. Kostu horiek aldakorrak zein finkoak izan daitezke, baita hasieran bakarrik ordaindu beharrekoak ere. Aurreikuspen bat egin ahal izateko denak bildu ditugu eta atal honen bitartez adierazi egingo ditugu.

Hasieran bakarrik ordaindu beharreko kostuei erreparatuz gero, web-gunearen eta aplikazioaren sorreraz hitz egin behar dugu. Horretarako, teknologian adituak direnen laguntza jasotzeak kostu bat suposatuko digu. Hori gutxi balitz, geure aplikazioa ezagutzera emateko erabiliko dugun publizitatea ere hasierako inbertsio bat izango litzateke, Maddon publizitate enpresari ordaindu beharko baikenio geure publizitate tresna guztiak sortzen laguntzeagatik.

Behin proiektua martxan jarrita kostu finkoak eta aldakorrak izango ditugu. Kostu finkoen inguruan hitz egiteko unea da orain, hau da, hilabetero kantitate bera ordaindu behar ditugun horien inguruan. Horietako bat webgunearen domeinuaren kostua da, eta horregatik hilero 1,49€ ordaindu behako genuke. Halaber, egoitza bat alokatuko dugu Madriden, Valle de Oro kalean hain zuzen ere, eta lokalaren alokairuak 90€ suposatuko lituzke hilean. Honekin batera, lokalerako wifia eta dei mugagabeek suposatuko dituzten kostuak ere kontuan hartu behar ditugu. Soldatak ere beste kostu finko bat izango dira. Alde batetik, langileok hilero 1.000€ko soldata jasoko genuke gutxi gora behera. Bestetik, influencerrak geure aplikazioa hilabetero ezagutzera emateagatik 250€ jasoko lituzkete. Azkenik, patentea eskuratzeagatik eta hau mantentzeko urtean 100€ ordaindu beharko ditugu.

Kostu aldakorrei dagokienez, hau da, hilabetero ordaintzeko kantitatea aldatzen denean, geure egoitzan egoteagatik ordaindu beharreko ura, argindarra eta gasa izango da funtsezko kostuak. Geroz eta denbora gehiago igaro egoitzan, orduan eta handiagoa izango da kostu hau. Esan beharra dago ondorengo taulan agertzen diren zifrak aurreikuspenak baino ez direla, hilabeteroko batezbesteko batzuk, alegia, eta zenbaki horiek alda daitezkeela.

Jarraian, aipatutako kontzeptu guztiak eskematikoki bilduko ditugu, kostuen egitura era laburrean eta bisualagoan antzeman dezagun.

HASIERAKO KOSTUAK

- Web gunea sortzea 1025€
- Publizitatea egitea (Maddon enpresari 350€)
- Aplikazioa sortzea (Dohainik, Anek sortuko du)
- Aplikazioa publikatzea (App Storen 99€, Play Storen 25€)
- Guztira: 1499€

KOSTU FINKOAK:

Zer ordaindu?	Hilabetero ordaindu beharrekoa	Urtero ordaindu beharrekoa
SOLDATAK (Langileak)	1000*4= 4000€	1000*12*4= 48000€
SOLDATAK (Influencerrak)	250*5=1250€	250*12*5= 15000€
DOMEINUA	-	14,95€
LOKALAREN ALOKAIRUA	90€	90*12=1080€
LOKALERAKO WIFIA+ DEI MUGAGABEAK	16€	16*12=192€
PATENTEAREN BERREZARPENA	-	100€
GUZTIRA	5356€	64386,95€

KOSTU ALDAKORRAK:

Zer ordaindu?	Hilabetero ordaindu beharrekoa	Urtero ordaindu beharrekoa
ARGINDARRA (Lokalarena)	35,60€	35,60*12=427,2€
URA	6,7€	6,7*12=80,4€
GASA	25€	25*12=300€
GUZTIRA	67,3€	807,6€

Hau guztia kontuan izanik, aurreikusten dugu **lehen urtean** geure kostuak guztira **66.693,55€** koak izango direla, hots, hilabetean 7.022,3€ koak.

